

Irakurle Digitala


Instalazio gida

Irakurle Digitala erabili ahal izateko bi hedapen prestatu dira. Bata, Mozilla Firefox nabegatzailearentzat **“bn_irakurle_digitala-1.0.1-fx.xpi”** eta bestea LibreOffice (OpenOffice) testu prozesadorearentzat **“BN_irakurle_digitala.oxt”**. Fitxategi horiek deskargatu eta ordenadorearen karpeta batean eskuragarri jarri behar dira.


Firefox



Hedapena instalatu baino lehen komenigarria da **Firefox** eguneratzea.



Edozein hedapen guztiak bezala nahikoa da **“bn_irakurle_digitala-1.0.1-fx.xpi”** fitxategia Firefoxen irekitzea. Hori egitean “BN Irakurle Digitala” gehigarria instalatzeko baimena eskatuko zaigu. Onartuz gero Firefox nabegatzailean beste tresna-barra berri bat izango dugu, **“EusTTS”** izeneko. Prest!





Esan bezala nahikoa da **“bn_irakurle_digitala-1.0.1-fx.xpi”** fitxategia Firefoxen irekitzea instalazioa abiatzeko baina ondorengo irudietan “Gehigarriak” kudeatzeko menutik abiatuko gara instalazioa pausuz pausu deskribatzeko.











LibreOffice




Hedapena instalatu baino lehen komenigarria da [LibreOffice](#) eguneratzea. Era berean, “Java” programa eguneratuta beharrezkoa da (irakurri beheko oharra).




Edozein hedapen guztiak bezala nahikoa da **“BN_irakurle_digitala.oxt”** fitxategia LibreOfficen irekitzea. “BN Irakurle Digitala” hedapena norentzat instalatu nahi dugun galdetuko zaigu. Nahi duguna aukeratu eta itxi. Prest! Itxi programa eta berriro LibreOffice Writer irekitzean tresna-barra berri bat izango dugu **“Osagarria 1”** izenekoa.



Esan bezala nahikoa da **“BN_irakurle_digitala.oxt”** fitxategia LibreOfficen irekitzea instalazioa abiatzeko baina ondorengo irudietan “Hedapenak” kudeatzeko menutik abiatuko gara instalazioa pausuz pausu deskribatzeko.








Oharra:

Gehigarria instalatzerakoan errore mezu bat ager daiteke, honelakoa adibidez:



Problema hau gainditzeko gaitu behar duzu Java Runtime Environment (JRE) LibreOfficen ezarpenetan.

